

ZIBERGela



Bideo-edizioa etxean



Bideoak gailu askorekin grabatzen dira gaur egun. Horiekin bideo-muntaiak egitea erraza da

JOSU WALIÑO

Elhuyar fundazioa

Argazkigintza eta bideoegintza digitala gure etxeetan sartu direnetik, edozeinek dauka aukera bideo digitalak grabatzeko. Gaur egun, bideokamerarik izan gabe graba daiteke bideo bat, argazki kamara digitalek eta sakelako telefonoek ere eskaintzen baitute aukera hori. Behin bideoak grabatuta, horiek editatu eta modu txukunean bideo-muntaiak egiten dituzte askok, eta, batzuetan, baita YouTube moduko Interneteko tokietan argitaratu ere.

Bideo-edizioa errazten duten mota askotako programak daude gaur egun: doakoak, modu sinplean gauzak egiten uzten dituztenak, eta baita ordaindutako programa profesionalak

ere. Eta, nola ez, badaude bideoa eta argazkiak erabiliz nahierako muntaiak egiteko aukera ematen duten webguneak ere. Ikus ditzagun, bada, aukerak.

MovieMaker eta iMovie

Duela denbora gutxi arte, bideo-edizioa egin ahal izateko, programa profesional eta garestiak erosi behar izaten ziren. Pixkanaka, ordea, aplikazio libreak garatzen hasi ziren, eta pauso nagusia sistema eragilean bertan bideoa editatzeko programak integratzen hasi zirenean eman zuten.

Microsoftek MovieMaker izeneko aplikazioa doan banatu zuen WindowsXPrekin batera. MovieMakerrek harrera ona izan zuen, oso programa erraza baita bideo eta argazkiekin bideo-muntaiak egiteko. MovieMaker erabiliz, argazkiak eta musika nahas daitezke, eta bideo bat sortu, edo, nahi bada, bideo zati desberdinak erabiliz, bideo-muntaia bat egin. Modu sinplean gauza ugari egiteko auke-

ra ematen du MovieMakerrek: muntaia sinpleak egin; musika, ahotsa, testuak, eta abar nahasi... eta hori guztia lan handirik hartu gabe egiteko moduan. WindowsX-Prekin banatzen zen lehen bertsio hura asko hobetu du Microsoftek, eta WindowsVistarekin ere bertsio hobea banatu du.

Maczaleek ere badute doako aukera bat sistema eragilean. iLife izeneko aplikazio-multzoa dauka MacOSXek, Leopard berriarekin asko hobetu dena. Suite horren barruan, iMovie izeneko aplikazioa dator, bideo-edizioko doako aplikazioa. Kasu horretan, maila ia profesionaleko aplikazio bat da, erraz erabiltzeko aukera ematen duena, eta, Windowsen kasuan bezala, sistemarekin batera instalatuta datorrena.

Doako aukerak

Programa horiek gustuko ez dituztenentzat edo Linux erabiltzaileentzat badaude beste aukera batzuk ere. Agian ezagunena Jahshaka izeneko da.

Jahshaka kode irekiko aplikazio bat da, eta hiru plataformatan dabil (Windows, Macintosh eta Linux). Lehen aipatutakoekin konparatuta, profesional itxurako aplikazio bat da Jahshaka, aukera ugari dituen eta akaso erabiltzeko konplexua gerta daitekeena. Baina bideo-muntaia landuak egin nahi dituzten erabiltzaileentzat aukera paregabea izan daiteke, eskaintzen dituen funtzionalitate ugariengatik eta bideoa gordetzeko ematen duen formatu aukera zabalarengatik, baita HDTV kalitatean ere.

Aukera sinpleagoa da VideoSpin, baina erabilgarria izan daiteke. Tresna hori Pinnaclek garatua da, bideo-edizioko software garrantzitsuenetarikoa baten gartzaileak. Pinnacleren bertsio komertziala baino askoz sinpleagoa izan arren, VideoSpin nahikoa izan daiteke etxeko bideoak sortzeko, trantsizio, testu, efektu, musika eta antzekoak gehituz bideoari. Gainera, bideoak zuzenean YouTube-ra eta YouTubea igotzeko aukera eskaintzen du.

Internet bidezko edizioa

Ezin ahaztu gero eta aukera gehiago daudela Interneten, eta, gaur egun, gero eta arruntagoa dela aplikazio-mailako aukera eskaintzen duten webguneak topatzea. Bideoa editatzeko ere badaude aukerak Interneten.

OneTrueMedia izeneko Interneteko atarian, bideo-muntaiak sortzeko aukera eskaintzen da. Argazki eta bideo txikiak editatuz, muntaia sinpleak egin daitezke,

Helbidea

Pantailaren bideo bat grabatzeko

Aplikazio asko daude pantailan gertatzen denaren argazki bat egiteko, eta baita bideo zatiak grabatzeko ere. Baina horrelako tresna-rik eskura ez dagoenean, edo ordenagailuan ezer instalatu nahi ez denean, badago pantailan gertatzen dena bideoan grabatzeko aukera ematen duen webgune bat: Screen-cast-o-matic. Webgune horretatik aukera dago pantailan gertatzen denaren bideo bat grabatzeko. Helbide honetan dago: <http://www.screencast-o-matic.com/>.

Tresna

Dokumentuak eta karpetak ezkutatzeko

Ordenagailua jende askorekin partekatzen denean, edo ezkutuko zerbait gordeta eduki nahi denean, komenigarria gerta daiteke karpeta edo fitxategi batzuk ezkutatzeko. Aukera hori eskaintzen duten aplikazio ugari daude Interneten. Horietako bat da Free Hide Folder izeneko. Tresna hori erabiliz, aukeratutako karpetak ezkuta daitezke, beste inork ez ikusteko moduan. Doakoa da, eta hemen eskura daiteke: http://www.cleanner-soft.com/hidefolder/free_hide_folder.htm.

baina kasu askotan nahikoa izan daiteke, eta, gainera, zuzenean argitaratu eta partekatzeko aukera ematen du.

Bideo-edizioa modu zuzenagorik egiteko, JumpCut izeneko webgune bat dago. Webgune hori YouTube-rena da gaur egun, eta bideo-edizioko aukera arruntenak egiteko aukera ematen du: klipak gehitu, trantsizioak erantsi, testuak gehitu, eta abar. Eta, noski, Interneten zuzenean argitaratzeko eta bideoak partekatzeko aukera ere ematen du, guztia modu errazean.

Gaur egun, bideo-edizioa edonoren esku dagoela esan daiteke, baita bideoak Interneten argitaratzeko aukera ere.

MovieMaker:

<http://www.microsoft.com/windows/downloads/updates/moviemaker.mspx>

iMovie: http:

<http://www.apple.com/es/ilife/imovie/>

Jahshaka:

<http://jahshaka.org/>

VideoSpin:

<http://www.videospin.com/>

OneTrueMedia:

<http://www.onetruemedia.com/>

JumpCut:

<http://jumpcut.com/>

